

## Ordenantzaren behin betiko onespena Irurtzongo herrian animaliak edukitzeko

Irurtzongo Udalak, 2001eko irailaren 18an egin osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Irurtzongo herrian animaliak edukitzeko Ordenantza.

Jendaurreko epea bukatu eta inork ez du erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu. Hortaz, behin betiko onetsita geratu da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 325. artikuluan xedatutakoarekin bat, eta honen jarraian argitaratzen da testua, osorik.

Irurtzunen, bi mila eta bateko azaroaren hamalauan. Alkate udalburua, Eduardo Murugarren Francés.

### IRURTZUNEN ANIMALIAK EDUKITZEKO ORDENANTZA

Udal mugapean osasungintza eta segurtasun aldetik behar diren baldintzak ezartzea da ordenantza honen xedea, herritarrek, animaliekin batera bizitzerakoan (zakurrekin bereziki), bizi-kalitate egokia izan dezaten, Udalaren eskumen eta beharkizunen esparruaren barnean.

#### I. KAPITULUA

##### Xedapen orokorrak

1. artikulua. Udal mugapean animaliak izateko beharrezkoa da osasungintza aldetik arriskurik ez eragitea, animaliak berak arriskugarriak ez gertatzea, hirugarrenei trabarik ez egitea, egokiro edukitzea eta egonlekuak dagozkion higiene-baldintzak betetzea.

2. art. Animaliekin ikusteko duten jardueretarako Udalaren aginduzko baimen edo lizentzia beharko da, eta jarraipena izateko, ordenantza honetan eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte betiere, eta aipatua ezezik, geroan nahitaezkoztat jo daitezkeen zuzenketak aplikatu ere egin beharko dituzte, muntadurek eta beren hartan egiten diren jarduerak kalterik ez dutela eragiten bermatzearen.

3. art. Debeku da errentako animaliarik etxebizitzaren barrenean izatea, edozein delarik haien kopurua. Horrelakorik edukitzea onar daiteke jabego pribatuko lurretan, behar bezala hesitu edo itxirik badaude, arau honetako 1. artikuluan ezarritakoa betetzen badute eta animaliarengandik ateratzen diren produktuak bere kontsumorako bakarrik erabiltzen baditu jabeak.

Ordenantza honi dagokionez, errentako animaliak dira beren jabeei halako irabazi edo baliabide batzuk ematen dizkietenak.

4. art. Animalia guztien jabeek, uneoro bete beharko dituzte gaitz zoonosiko eta epizootikoei aurea hartu eta desagertarazteari buruz indarra duen arauteria. Epizootiak deklaritzen badira, aurea hartzeari dagokionean agintari eskudunek ematen dituzten xedapenak bete beharko dituzte.

Albaitariak eta albaitaritze-klinikek, beren lanean dihardutela, zoonosi gune edo kasuen berri badute, Udalari jakinarazi beharko diote berehala.

5. art. Kontrolik gabeko animaliek eritasun kutsagarriak ez dezaten eta horiek pertsona eta ondasunei trazarik ez kalterik egin ez diezaien:

-Herritarrek Udalaren osasun zerbitzuei jakinaraziko diete abandonaturik egon daitekeen animaliarik ikusiz gero. Ez da komeni halakoetan herritarrek janaririk ematea.

-Lagun egiteko edozein animalia kendu nahi duenak Udalari gaztigatuko dio, bil dezan.

-Debeku da edozein espezieetako basa-animalia bide edo eremu libre publikoetan barna ibiltzea, etxekotua izanik ere.

6. art. Udalaren osasun zerbitzuek eraman eta konfiskatuko dituzte behin eta berriz arau-hauste gogaikarriak egiten dituzten animaliak. Eramateko eta konfiskatzeko agindua agintari eskudunak eman beharko du eta animaliak Nafarroan eskumena duen organoaren esku geldituko dira.

7. art. Animalia hilak, haien tamainak aukera ematen badu, material iragazkaitzeko poltsetan sartuko dira, eta horiek behar bezala itxiko dira, garbiketa zerbitzuek eraman dizaten.

Debeku da animalia hilak aire zabalean, ur-ibilgutan eta gainerako eremu publiko nahiz pribatueta uztea.

## **II. KAPITULUA**

### **Guztiendako arauak lagun egiteko animalien gainean**

8. art. Ordenantza honi dagokionez, lagun egiteko animalia da irabazi asmorik gabe, atsegin eman eta lagun egiten diolako gizonak bereziki etxean zaintzen duen animalia.

9. art. Animalien jabeen ardura izanen da neurriak hartzea animaliak etxe nahiz lokaletatik kanpora bakarrik eta inork gidatuak izan gabe ibil ez daitezen.

Beren jabe edo edukitzaileen etxetik kanpora bakarrik behin eta berriz ibiltzen diren animaliak abandonatuzat joko dira eta organo eskudunak atzematen ahalko ditu. Honen ardura izanen da animaliekin zer egin inork erreklamatzeko ez baditu legez ezarritako epean.

10. art. Jabeek edo edukitzaileek animaliak kendu nahi badituzte, Udalari jakinaraziko diote eta honek bitartekari lanak eginen ditu probintzian horren ardura duen zerbitzuak bil ditzan. Debeku da udal mugapeko edozein tokitan abandonatzea.

11. art. Espreski debekaturik dago animaliarik sartu eta egotea elikagaiak prestatu, erabili eta biltzeko lokaletan, eta horiek garraiatzeko ibilgailuetan. Orobat, debeku da animaliak elikagaiak saldu edo kontsumitzeko establezimenduetan sartzea.

12. art. Ez dago baimendurik animaliak kultur eta kirol arloko jendaurreko ikuskizunetako lokaletara sartzea, ez eta erabilera publikoko igerilekuetara ere.

Orobat, debeku da animaliak eritetxeetara edo anbulatorioetara eta ikastetxeetara sartzea.

Debeku da Udalak zehaztutako berdegune eta lorategietara sartzea.

Artikulu honetan ezarritako debekuetatik salbuetsirik daude ikusmen urriko pertsonak laguntzeko gida-zakurrak.

13. art. Jendeari ostatu ematen dioten eta elikadura arlokoak ez diren establezimenduen jabeen esku gelditzen da animalien sarrera eta egonaldia debekatzea, tokiaren maila edo kategoria kontuan hartu gabe, baina kasu horretan egoitzaren sarreran ikusteko moduko seinalea paratu beharko dute.

Nolanahi ere, debeku horrek ez du indarrik izanen ikusmen urriko pertsonak laguntzeko gida-zakurrentzat.

14. art. Lagun egiteko animalien erasoaren ondorioz inor kolpaturik gertatzen bada, Udalaren osasun zerbitzuei emanen die horren berri, medikuaren azalpena erantsiz. Osasun zerbitzu eskudunek erabakiko dute zer-nolako osasun kontrola eramanen duten zakur erasotzailearekin.

Osasun zentroek Udalaren zerbitzuak jakitun egin behar dituzte, baldin eta laguntza medikoa edo kirurgikoa ematen badiete lagun egiteko animalia bategi erasotzeko kolpatuak gertatzen diren pertsonen.

### **III. KAPITULUA**

#### **Zakurren gaineko arau berariazkoak**

15. art. Zakurren zentsua prestatu eta kudeatzea, Irurtzungo udal mugapean, Nafarroako Gobernuaren eginkizuna da.

Lau hilabete egitean, udal mugapean bizi diren zakurren jabe eta edukitzaileak beharturik daude haien identifikatzera, une horretan legeriak ezarria dukeen prozeduraren bidez.

16. art. Xede berarekin -zakurren zentsua eguneratzea- zakurren jabeak beharturik daude honako hauen berri ematera:

- a) Bajak, heriotza edo desagertzea dela medio.
- b) Bertze udalerriren bateko zakurrak eskuratu direla.
- c) Zakurren jabetzari dagokionez gertatutako aldaketak.
- d) Jabeen helbide aldaketak.

17. art. Udalerrian bizi diren zakurren jabe edo edukitzaileak beharturik daude animaliei amorruren kontrako txertoa ematera lau hilabete betetzen dituztenean, eta hortik aitzina ezarrita dagoen birtxertaketa egutegiarekin segitzera.

Txertaketa horiek agertu behar dute animalia-identifikaziorako osasun agirian, eta horretaz jabea edo duena bera arduratuko da. Udalari egindako txertaketen berri eman behar zaio.

18. art. Zakur batek ausikirik egiten badio inori, honek gertatutakoa jakinaraziko die Udalaren osasun zerbitzuei, eta medikuaren azalpena aurkeztu aldi berean.

Zakur ausikigilearen jabe edo edukitzailea beharturik dago aferean nahasitako animalia-identifikazio datuak ematera erasotua gertatu denari edo haren legezko ordezkariari eta agintari eskudunei. Udalaren osasun zerbitzuak lehiatuko dira nahitaezko txertoa egunera dezaioten.

Zakur baten jabe edo edukitzaileak uste badu bere zakurrak badituela amorruren ezaugarriak, edo arrazoi horregatik animalia hiltzen bada, Udalaren osasun zerbitzuei jakinaraziko die.

19. art. Udal mugapeko bide publiko guztietan, berdeguneetan nahiz etxeetako sarbide eta leku komunetan, zakurrak katez edo uhalez loturik badaude eta beraiek kontrolatzeko gauza den inork eramaten baditu baizik ez dira ibiltzen ahal, salbu eta Udalak berariaz debekatutako tokietan.

Nolanahi ere, lehenago noizbait erasorik egin duten zakurrek edota aldez aurretik arriskugarritzat jo daitezkeenek, nahitaez eraman beharko dute muturrekoa.

Udalerriko agintaritzak zehapena paratzeko ahalmena izanen du zakurrak aipatu baldintzak bete gabe ibiliz gero.

20. art. Udalaren eraginez konfiskaturiko zakurrak identifikatzeari ekinen zaio, eta halakorik bada jabeari gaztigatuko zaio, honek hamar eguneko epea izanen baitu berreskuratzeko. Agertzen ez bada, Animaliak Babesteko Elkartearen esku geldituko da.

21. art. Bildutako zakurra jabeari itzuliz gero, animalia-identifikazioa eta txertaketak eguneratu beharko dira. Horrek sortzen dituen gastuak betiere jabearen bizkar izanen dira.

22. art. Zakurrekin ibiltzen diren pertsonak galarazi behar dute horiek kaka egitea espaloi, galtzada, parterre, berdegune eta eremu publikoko nahiz erabilera publikoa duen eremu pribatuko bertze edozein elementuren gainean.

Zakurraren eramailea beharturik egonen da aitzineko lerrokadan zehazten diren lekuetan egindako gorotza jaso, bere hartatik kendu eta, behar bezala bildurik, eremu publikoan dauden edukiontzietan uztera, eta zikindutakoa garbitzeaz ere arduratu beharko du.

23. art. Edozein motatako finka edo lokaletan, zaindari lanetan zakurrik baldin bada, ikusteko moduko lekuan ongi seinalaturik adierazi beharko da.

#### **IV. KAPITULUA**

##### **Arau-haustek eta zehapenak**

24. art. Ordenantza honi dagokionez, honakoak dira arau- hauste arinak:

- a) Zakurrak eremu publikoetan eramatea uhalez lotu gabe.
- b) Eremu publikoak lagun egiteko animalien gorotzez zikindu eta ez garbitzea.
- c) Animaliak behar duten mantenerik gabe edukitzea.
- d) Animaliak behar bezalako higiene eta osasun baldintzarik ez duten muntaduretan edukitzea.

25. art. Aitzineko ataleko arau-hauste arinek 60tik 250 euro bitarteko (9.983tik 24.958 pezeta bitarteko) isuna izanen dute zehapen.

26. art. Ondoko ordenantzetan aurreikusi gabekoetan, Animaliak babesteari buruzko maiatzaren 31ko 7/1994 Foru Legeak, arau-hauste eta zehapenei dagokienez ezarritakoari jarraituko zaio.

Iragarkiaren kodea: a0112560

**154. ALDIZKARIA - 2001ko abenduaren 21a**